

# **Areatzako Isabel Deunaren komentuko kontu-liburuen bidezko 1680 eta 1885 bitarteko Bizkaiko koiuntura ekonomikorako hurbilketa**

(Approximation to Biscayan economic evolution  
between 1680 and 1885 by analysis of accountancy  
of Saint Isabel's convent (Areatza, Biscay))

Lange, Jürgen<sup>1</sup>; Zabala, Mikel<sup>2</sup>

Deustuko Unibertsitatea. Filosofia eta Letretako Fak.

Unibertsitateetako Etorbidea, 24. 48007 Bilbo

Jaso: 99.07.05

BIBLID [1136-6834 (2002), 32; 395-422]

Onartu: 02.04.15

---

*Aro Berriko hiribildu baten salneurriak ditugu aztergai ondoko artikulua honetan. Eskola historiografiko tradizionalen argudioen berrikuspenetik hasita, jatorriaren araberako produktuak multzokatzea proposatzen da, etorkizuneko ikerketa berrietarako metodologia bezala. Jarraian, Aintzin Erregimeneko Bizkaiaren eremuan datu horiek izan dezaketen baliogarritasuna aztertu dugu, hedapen handiagoko merkatuen integrazio prozesuaren testuinguruan kokatuz.*

*Giltza-Hitzak: Salneurriak. Inflazioa. Tokian tokiko historia. Bizkaia.*

*Este artículo presenta un análisis de precios de una villa vasca moderna. A partir de la revisión de los argumentos de las corrientes historiográficas tradicionales, se obtiene la agrupación de productos según procedencia como vía metodológica abierta a nuevas perspectivas. A continuación, se pondera la representatividad de tales datos en el conjunto de la Bizkaia Antigüorregimental, insertándose en el contexto de los niveles de integración en mercados de mayores dimensiones.*

*Palabras Clave: Precios. Inflación. Historia Local. Bizkaia.*

*Cette articule présente l'analyse des prix dans une ville basque moderne. D'abord, on revise les arguments défendus par l'historiographie traditionnelle, afin d'obtenir une classification des produits selon sa origine comme méthode ouverte à nouvelles recherches à l'avenir. Après, on examine la représentativité de ces données pour l'ensemble de Biscaye à l'Ancien Régime, et on explique au cours de l'intégration dans marches plus longs.*

*Mots Clés: Prix. Inflation. Histoire Locale. Biscaye*

---

1. Siegengo Unibertsitateko Doktore. Deustuko Unibertsitateko Irakasle.

2. Deustuko Unibertsitateko Doktore.

## 1. SARRERA

Artikulu honen izenburuak egileon helburuak laburbiltzen ditu. Bertan euskal hiribildu baten salneurrien azterketaren bidez Aintzin Erregimeneko abagaduneak eta sakoneko aldaketak ezberdintzen saiatuko gara. Izan ere, diruaren balorearen aldakuntzak era ezberdinetako aldaketak adieraz ditzakete: bai elikaduran, nola baita ekoizpenean, sistema monetarioan etab.

*Salneurrien iraultza* deritzon fenomenoaz aztertutako garaikoa baino lehenagokoa izanik, aipamena ezinbestekoa izango dugu, betiere ondorengoko eredu teorikoek erabat baldintzatzen dutela kontutan izanik<sup>3</sup>.

XVI. mendeko Iberiar Penintsulako Salamancako Eskolako ekonomialariak ditugu, hain zuzen, salneurrien etengabeko igoera garaikidearen lehendabiziko ikerlariak. 1557etik, esaterako, apaiz barasoindarra izandako Martín Azpilicuetak salgaia eta monetaren arteko erlazioaz idatzi zuen:

“Todas las mercaderías encarecen por la mucha necesidad que ay, y poca cantidad dellas; y el dinero en quanto es cosa vendible, trocable o conmutable por otro contrato, es mercadería, por lo susodicho, luego también él se encarece por la mucha necesidad y poca cantidad dél...”<sup>4</sup>.

Frai Tomas de Mercadok honela jorratu zuen gai berbera 1568an:

“...que en Indias vale el dinero lo mesmo que acá (conviene a saver) un real treynta y quatro maravedís, un pezo de minas treze reales y lo mesmo vale en España, mas aunque el valor y precio es el mesmo, la estima es muy diferente en entrambas partes. Que mucho menos se estima en Indias que en España (...) La qual estima y apreciación es causa lo primero, de tener gran abundancia o penuria de estos metales, y como en aquellas partes nasce y se coge, tiénese en poco (...)”<sup>5</sup>.

Oso era berdinez azalduko ziren Luis Sarabia, Luis Ortiz, etab. Zerrenda, beraz, aldaketa handirik gabe erraz luza liteke.

Beste testuinguru batetik, Malestroict frantsesak monetaren doilortze eta salneurrien igoeraren arteko erlazioa azaldu zuen 1566ean. Ikuspuntu honetan oinarrituta, *Bullonismo* delakoaren aldeko idazle frantsesek Ogasun Publikoaren sorrera defendatuko zuten metal preziatuak bermatzeko eta berauen kanporaketaz babesteko.

---

3. Ez dugu datozen orrialdetan erabateko eredu berririk eratu nahi; aldeaz aurrekoak kritikoki berrikusi baizik.

4. Cf. P. VILAR (1983: 135-162).

5. TOMÁS DE MERCADO: *Suma de tratos y contratos. Libro IV. De Cambios*, nº 30 rº, Sevilla, 1571. Kasu honetan zeharkako aipamena da, jatorrizkoa P. VILAR (1983: 141) izanik.

Oso bestelako argudioak erabiliko zituen Jean Bodinek bere *La réponse de Jean Bodin à M. de Malestroict* idazlanean. Hemen aurrekoaren salneurrien igoera eta monetaren doilortzearen arteko ustezko paralelismoa deuseztatuko zuen. Gorteko Abokatu honen esanetan:

“Todo es más caro en España que en Italia, y en Italia que en Francia, incluso el servicio y mano de obra, ya que lo que atrae a nuestros auverneses y limosines hacia España, como yo mismo he comprobado, es que ganan tres veces más que en Francia. Porque el español, altivo, rico y perezoso, vende su trabajo muy caro (...) Es por tanto la abundancia de oro y de plata lo que, en parte, causa la carestía de las cosas”<sup>6</sup>.

Behin garai hartatik gaia oposaturiko bi joera hauetan banatuta, handik aurrera gehitutako argudioak ugari izan dira. Besteak beste, John Lockek 1692ean proposatutako moneta-zirkulazioaren abiadura aipatuko dugu<sup>7</sup>.

Gaurregunean salneurrien historia bi eskolatan banatzen da: Koantitatibismoa vs. Fiskalismoa<sup>8</sup>. Bodinen jarraitzailea den lehendabizikoak moneta kopuruaren susperraldia eta salneurrien igoeraren arteko erlazio zuzena defendatzen du. Bigarrenak, berriz, demanda autonomoaren gorakadaren eragina (bizitzarako beharrezkoak diren ondasun eta zerbitzuena, alegia) goraipatzen du.

Inflazioa talde bien aztergaia dugu. Inflazio iraunkorra izateko moneta kopurua gehitu beharra dagoela ez da zalantzetan jartzen. Baina Koantitatibismoaren jarraitzaileen ustetan moneta-zirkulazioaren kopuruaren faktore erabakiorrak salneurri zehatz batetako diru-sarreraren nazionala eta moneta-zirkulazioaren abiadura dira; diru kopurua gehitzeak ekoizpen unitate bakoitzeko demanda monetarioarena dakarrelarik. Ezinbestekoa da, ondorioz, ekoizpena edota salneurrien susperraldia (azkeneko hau XVI. mendeko salneurrien iraultzaren garaian gertatutakoa dugu). Fiskalismoak, bere aldetik, guzti honetaz aparte faktore demografikoa (aipatutako garaian kontsumozko ondasunen demanda autonomoaren gorakada, alegia) kontutan hartzekoa dela defendatzen du.

Mende honen hogeigarreneko hamarkada amaiera eta hogeitamarreko hamarkada hasiera bitartean, idazle batzuk Aintzin Erregimeneko salneurrietako bilakaerari buruzko makina bat datu bildu zuten. Besteak beste, honako hauek ditugu: E.J. HAMILTON: *El tesoro americano y la revolución de los precios en España 1501/1650*; E. LABROUSSE: *Fluctuaciones económicas e his-*

---

6. P. VILAR (1972: 122) da, berriro, gure iturburu.

7. Elementu hau ez dugu idazmen honetan landu bi arrazoiengatik. Alde batetik moneta-zirkulazioaren abiadura aldi historiko konkretu batetan zehazteko zailtasunengatik; bestetik gaurrengungo ikertzaileek epe luzeko moneta-zirkulazioaren abiadura hori iraunkorra dela usteagatik.

8. Jarraian zirriborratzen diren ildoak bi ereduren oso sintesi laburrak baino ez dira. Behar bezalako oinarri teorikoetarako ikus. R. PIEPER (1985: 67-82), P. VILAR (1972: 122), edota R. METZ (1994: 223-234).

toría social; eta W. ABEL: *Agrarkrisen und Agrarkonjunktur*. Azkenengo bi hauek aldaketa demografiko eta monetaren gorabeheren arteko erlazioa izan zuten aztergai, urtaroz urtaro, urtez urte eta iraupen luzeko zikloak ezberdinduz. Salneurrietako aldaketetako epe laburreko faktorerik eragileena uzta bera omen zen; beste tarte luzeagotan bilakabide demografikoa zen bitartean<sup>9</sup>. E. LABROUSSEn esanetan aintzineko motatako krisialdia maila sozial nabarmeneko produktuen ordez bestelako elikagai pobregoak kontsumitzea-ri ekitea zen<sup>10</sup>. E.J. HAMILTONek, bere aldetik, XVI eta XVII. mendeko salneurrietako gorakada metal preziatuen inportazioetan zeutzala esan zuen.

Laburbilduz: salneurrien ikerketak –garrantzi gehieneko faktorearen araberabera– bi talde nagusitan bana daitezke:

– Eskaintza eta demandaren arteko erlazioa (uzten gorabeherak, aldaketa demografikoak, etab.).

– Moneta-sisteman izandako aldaketak (metal preziatuen inportazio edota esportazioa, monetaren doilortzea, etab.).

Guk, berriz, moneta-sistemak oso gorabehera gutxi ezagututako aldia aukeratu dugu (aurreko mendearekin konparatuz gero, bederen). Eragingarria izaten jarraitzen bazuen ere, ez zen jadanik faktorerik erabakiorrena. Gure iritziz, beraz, “las abundantes minas de América fueron la *principal* causa de la revolución de los precios en España”<sup>11</sup> esatea ez da zilegi. Monetaren doilortzea, bestalde, ia ez dagokio aukeratutako aldiari, gutxienez 1782ean Karlos Deunaren Banketxe Nazionalaren sorrera bitartean.

Uzta kazkarrak, katastrofe naturalak, gudak, eta antzekoak, aitzitik, grafi-koetan gorabehera labor eta bortitzen bidez isladatzen direla susma daiteke.

Gure artikulua honen objektiboa oso bestelakoa da. Historia Garaikidean murgiltzen garen heinean faktore berriak azaltzea (besteak beste, nekazal berritapenak edota merkatal egituretako aldaketak) ulergarria da oso. Gure helburua gauzatzeko Areatzako Isabel Deunaren Komentuaren Kontu-liburuetako salneurrietako analisisira joko dugu. Metodologi hau alde aurretik hasia izanda ere –J. LANGE (1996: 191-196)– honako orrialde hauetan garai luzeago eta produktuen zerrenda zabalagoak izango ditugu aztergai<sup>12</sup>. Garraio sarearen araberako hiru

---

9. W. ABEL (1974: 34-42).

10. E. LABROUSSE (1980: 135-138).

11. E.J. HAMILTON: *El tesoro americano y la revolución de los precios en España 1501/1650*. Hemengo aipamenerako J. NADAL OLLER (1959: 515). Testuaren azpimarra berea izanik, geureganatzen dugu.

12. Metodologi hau, sinesgaitza ematen ba du ere, ez da batera landua izan. Nahiz eta E.J. HAMILTONek berak ere (1988: 121 eta hurr.) erabilitako iturria bezalakoa izan. Elizaren artxibategiak landutako orain arteko beste emaitza batzuk oso ezaugarri ezberdineko apezteriarren agirietan –J.M. CIFUENTES PAZOSek (1994); E. CATALÁN MARTÍNEZek (1995)– ala, komentuetako iturriak erabiltzetokan, hemengoetatik oso helburu ezberdinekin –M.A. BARCENILLAK (1985)– ihardun dute.

multzotan batu ditugu produktuak. Honela, bertan gorabeheretako kausak bilatu ezezik, benetazko aldaketa ekonomikoak nola isladatzen edota tresnatzen diren ere bilatuko dugu, aurreko idazleek ez bezala.

## 2. AREATZAKO EZAUGARRI OROKORRAK

Zeanuritik<sup>13</sup> *Villa de Haro* izenez<sup>14</sup> 1338.eko Abuztuak 15ean Juan Núñez de Haro eta M<sup>a</sup> Díaz de Haro Bizkaiko Jaunen hiri-gutunaren bidez sortutako udalerrria dugu. Hiri-gutun honek juridikoki, eta ondorioz ekonomikoki (hau da, Gaztelar legedi zibila, kargu publikoetako izendapena<sup>15</sup> edota azokak ospatzeko ahalbidearen bitartez) ingurunetik nabarmen bereizten du. Arratialeko araneko hondoan kokaturik, Bizkaiko komunikabide-sare nagusietatik kanpo gelditzearren edo, ez omen zuen inoiz Jaurerri mailan oso biztanlego-kopuru murrizta gainditu ahal izan. Hona hemen datu batzu:

Data	Bizt.Zbk.	Iturriak:
1787	610	I.N.E. (1988)
1797	611	B.F.A.A.: Atal Adm.: Biztanleri Estatistikak I: 50. Erreg.
1802	615	B.F.A.A.: Atal Adm.: Biztanleri Estatistikak I: 24. Erreg.
1810	593	B.F.A.A.: Bestelakoak: Liburu Historikoak: 128. Zbk.
1813	562	B.F.A.A.: Atal Adm.: Biztanleri Estatistikak I: 24. Erreg.
1825	728	G.B.A.: A.B.: Biztanleri Estatistikak: Polizi Errolda: 20. Erreg.
1997	1.096	

Burdindegi txikitako burdingintza ta ilgintza arloak izan omen ziren Areatzako iharduera ekonomiko nagusienak Aintzin Erregimenean zehar, Gasteizerako bideko Otxandio edota Ubidea bezalako udalerriekin parekatuz<sup>16</sup>. XVIII. mendeko bigarren erdialderako, dena dela, iharduera hauek kinka larria ezagutu zuten, nonbait. Izan ere, V. GONZÁLEZ ARNAUren mende

13. J. YBARRA Y BERGÉ (1967: 253).

14. Egia esan, handik gutxira hiribildua kokagunez aldatuko zen, jatorrizko Areatzako teileriatik aldenuz, osasun neurriak direla medio, gaurrengungo eremura bideratuko zela. J.R. ITURRIZA (1985: 822).

15. Hauteskunde-sistemak ez zuen sekula oligarkizapen prozesurik ezagutu, urteroko izendapenak herriko jabedun guztien artean tartekatzen zirela. Cf. F. MARTÍNEZ RUEDA (1994: 46).

16. XVIII. mendeko Areatzako burdinaren prezioak R. URIARTE AYOK (1988: 218) argitaratu eman zituen.

amaierako deskribapenak bederatzi errementeriarren berri eman arren<sup>17</sup>, XIX. mendeko erdialderako batere ez omen zen gelditzen, P. MADDOZ sinistuz gero<sup>18</sup>. Industriegintza honen deuseztapenak, hargatik, ez zuen hirigintzaren izaera bereizgarria eraldatu: 1797ko Erroldan lau idazkari ta hogeita lau jornalari agertzen dira, nahiz eta hamar artisau baino ez azaldu<sup>19</sup>. 1825eko Erroldan, bestalde, biztanleriaren ehuneneko 29,5ak baino ez dio ekiten burdingintzari (Ubidean, berriz, esaterako ehuneneko 41ak); beti ere ehuneneko beste 44,9a bestelako jardueretan sailkatuta dugu, eskualdeko beste udalerririkoa aldea puntu honetan datzalarik, F. RAMOSen arabera<sup>20</sup>.

Hala edo nola, Aintzin Erregimeneko krisialdiak kanpoko beste merkatutara desbideratu omen zituen inguruneko aborokinak: 1800 urterako desagertuak ziren alde zureko asteroko azoka eta Bartolome Deunekoa (urtean zehar zortzi egunez baino ez zela ospatuko, Mikel Deuneko egunetik aurrera, hain zuzen), Euskal Herriko beste hainbat udalerritan ez bezala<sup>21</sup>. Aurrekoaren ondorioz, XIX. mendean zehar gaur eguneraino iraun duen nekazal jarduera nagusitu zen. Areatza erabateko nekazal udalerritzat jotzen zuen M. AZCARRAGAK 1885ean<sup>22</sup>.

### 3. AREATZAKO ISABEL DEUNAREN KOMENTUA<sup>23</sup>

Zeanurin lekturiko<sup>24</sup> Komentu Klaretiar honen sorburua, Aro Berriko lehendabiziko urteetako agiri falta dela medio, ezezaguna dugu. J.R. ITURRIZAREN esanetan 1620an serorategia komentu bilakatu zen<sup>25</sup>. Data honen inguruan, beharbada Monjetxearen araudiaren moldaketarekin batera, lehenbiziko agiriak ditugu. Komentu eta hirigintzaren elkarren arteko harreman zuzena ez dago zalantzan jartzerik. Besteak beste, nolabaiteko gehigarriren ekoizpena, etengabeko eskaria, iharduera aurreindustrialak, edota

---

17. REAL ACADEMIA DE LA HISTORIA (1980: 457).

18. P. MADDOZ (1990: 206).

19. B.F.A.A.: Atal Adm.: Biztanleri Estatistikak I: 50. Erreg.

20. F. RAMOS (1987: 160).

21. Garai honetako azoka berrien zabalitze prozesurako, ikus. E. FERNÁNDEZ DE PINEDO (1974: 234).

22. J.R. ITURRIZA (1985: 825). Idazkia J.R. ITURRIZAREN Munitibargo eskuizkribuaren M. AZCARRAGA REGILEK babestutako berrargitalpenari dagokio.

23. Kontrakoa zehaztu ezean, eta oharrak arintzeko asmoz, hemendik aurrera azalduko diren aipamen guztiak Komentu honen Artxibategiko eta amaieran agertzen diren Kontu-liburuetatik ateratakoak dira. Beronen Artxibategi oparoko agirien erabilpenerako komunitate honen laguntza eta jarrera, alde zurrekoetan bezalakoak, eskertu nahi ditugu.

24. REAL ACADEMIA DE LA HISTORIA (1980: 457) edota P. MADDOZ (1990: 206).

25. J.R. ITURRIZA (1985: 823). Data Bizkaiko beste hainbat Komenturekin bat dator, Berrizeko historiagilearen lan honetan agertzen den modura.

maileguren eskaintza, berorren adibide ditugu. Komentuaren azterketa sozio-ekonomikoak artikulu honen ahalbideak gaitutuko lituzkeela esan beharrik ere ez dago. Areatzako hirigintza eta bertako Monjetxearen tamainien arteko parekotasuna aipatu gura dugu, beti ere eskualdeko komentu eskasiak –Orozkoko Ibarren kokaturiko Mesedeetakoa salbuespen bakarra dugu– gure Komentuaren eragina zabalitzen du. Ez da harritzekoa, beraz, bai kidez nola baita aberastasunez ere, Arratiko Merinalde osorako zabalpena<sup>26</sup>. Garai berri xamarretarako besterik ez ba da ere, Isabel Deunaren Komentuaren moja kopuruak ezagutzen ditugu:

Urtea	Moja kopurua	Iturriak
1787	18	I.N.E. (1988)
1797	12	B.F.A.A.: Atal Adm.: Biztanleri Estatistikak I: 50. Erreg.
1809	11	J.M <sup>a</sup> MUTILOA (1984)
1828	14	A.I.D.K.A.H. <sup>27</sup>
1837	12	Ibid.
1845	8	Ibid.
1859	15	Ibid.
1869	19	Ibid.
1874	15	Ibid.
1884	22	Ibid.

Moja kopuruetako gorabeherek ordain-estrategien azterketa emankorra adierazten dute, nahiz eta –aurrez esan bezala– honako honetan egiteke utzi behar. Azaleko erreferentzia baino ez ba da ere, dena dela, Desamortizazioan galdutako ondasunek Komentuaren gaitasun ekonomikoa isladatzen dute, Bizkaiko hirigune nagusienetatik urrun lekuturiko elkartea izanik<sup>28</sup>. Jakina, alaba mojavai sartzea ez omen zen gastu makala izan jatorrizko familiarentzat; ezta arratiar guztiek ordain zezaketen diru kopurua, nonbait. M<sup>a</sup> Josefa moja izateko mila dukatatako dotea pagatu behar zen 1825eko Abuztuak

26. Ikus. beronen berri batzu J.M<sup>a</sup> MUTILOAn (1984: 512).

27. Hurrengo zenbakiak Garizumako bula erosketetan oinarritzen da. Ez ditugu Komentuko biztanlegoaren aldaketa guztiak kontutan hartu, ikusgarrienak baizik, moja baten hilketa dela bide maiz askotan aldatzen zirelako zenbakiak.

28. J.M<sup>a</sup> MUTILOA (1984: 43 eta 512).

8an<sup>29</sup>. Bitxikerietan bildutako aberastasun maila, berriz, ez dakigu, tamalez. Inbentario faltan, frantziarren beldurrezko larrialdietan baino ez ditugu nabaritu, une zehatz eta bakar batetan. 1813ko Abenduan, hain zuzen:

“...por limpiar la plata de nuestra iglesia por aber deslucido bajo de la tierra por miedo de los franceses hubo de gasto 158 reales”.

Ordain-estrategiek aipatutako maila ekonomikoaren berri ematen omen dute. Hala adierazten dute okela, gari, olio edota argizariaren etengabeko erospenek, nola baita gozoki-ekoizpena<sup>30</sup>. Izan ere, artoaren erosketak –eta Arratialeko ohizko elikadura ez bezala– Komentuko txerri eta hegaztientzat baino ez ziren<sup>31</sup>. Urte hasieran erositako bizpahiru “cerdudos” edo “gruñientes” (bosten bat ere izan ziren hainbat urtetan)<sup>32</sup> hurrengo hilabetetarako despen-tsan paregabeko gehigarri bilakatuko ziren Martin Deunetan. Gatzartuak, lukainkak edota odolkiek Seroretzeko otorduak alaituko zituzten oso. Txerribodan sarritan betabere zaharren bat hiltzen zen, 1685eko Abenduan bezala:

“...hubo de gasto con los vientres de los gruñientes y matanzas de gutrales y el día de Pascua 20 reales y en esta forma: primeramente 6 reales y medio de pimienta (...) la canela y clavo; 6 reales de azúcar que con los 6 de la matanza de los gutrales y vino del carnicero montan los dichos 20 reales.”

Eguneroko ardo kontsumoari dagokionez, zehazki zenbatekoa zen moja bakoitzeko ezezaguna badugu ere, ez omen zen Ikusliarrari egonaldi bakoitzean ematen zitzaion azunber erditik urrunegirik izan. 1752ko Azaroak 30a, bestalde, zera arautu zen:

“Que a las novicias no se les administre mas vino ni racion que a las religiosas profesas por ser abuso lo contrario.”

Era berean, eguneroko okela zatikoa libera erdikoa zen, nonbait:

“Que a las religiosas se les administre media libra de vaca, a cada una sin que de estas raciones se gaste para la criada ni para otra persona.”

---

29. Antzeko kopurua agertzen da Abandoko Mesedeetako Ama Birginaren Komentuan (L.S.J.K.A.H.: 1796 eta 1853 bitarteko Kontu-liburua). Garai hartako Lekeitioko Domingotarren Komentuko doteak 800 eta 1300 dukata artekoak ziren (L.D.K.A.H.: 1799 eta 1833 bitarteko inbentarioa). Komentuan sartu aurreko ezberdintasun ekonomikoak zein neurritan barneratzen diren itauntzea, beraz, zilegi da, nonbait... Abandoko Komentuko agiritegi historikoaren gaurengungo titularrei, bestalde, eskerrak eman nahi dizkiegu.

30. Hemen deskribaturiko elikadura F. LE PLAYk (1990: 134-135) 1856ko Donostiako arrantzaleen familiarenarekin –azkenengo hau, ustez, baikor xamar– aldera daiteke.

31. Noizbait baita Ikusliarrari ere oparitzen zitzaion.

32. 1708eko Abenduan:

“Ytem pesaron los cuatro cerdudos 502 libras que costaron con sus matanzas en todo 371 reales y medio”.

Baina, aurrekoan ez bezala, nekez adierazten da pisua. Beronen analisia, beraz, bertan behera utzi dugu.



Okelaren Garisumako derrigorrezko baraualdia, bestalde, begirunez bete omen zuten ikasitako garaiko aldirik gehienetan. Hileko okela erosketetako beherapenak hala adierazten du<sup>33</sup>:

Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina
213	50	50	206	220

1752ko Azaroak 30eko araudian honela agintzen zen:

“Que los dias de vigilia se administre una libra de bacalao entre cuatro reli-giosas con aceite correspondiente para su condimento y a las que no pudieren comer bacalao se las administre un par de huevos.”

1819tik aurrera, bestalde, betekizun honen orde bi errealetako bulak erosiko zituzten urtero mojek (eta bertan egotekotan, baita Ikusliarrak ere) okela jan ahal zezaten.

Ingurune laikoaren artean Komentuaren eskulangintzaren arrakasta, bes-talde, ez dago zalantzan jartzerik. 1805eko Urtarrilean, esaterako, Seroretxearentzat ordezkaritza lanetan aritutako Ambrosio de Eguiak “porque hizo e no quiso llevar los derechos por las asesorías que esta comunidad sigue en pleito 52 reales, a saber: un par de calzetras finas y bizcocho y tar-tas (jaso zuen)”. Ezohizko gertaera ez, nonbait: 1812ko Apirilean, halaber: “se han gastado en estos 26 meses con varias personas bienechoras 109 reales de bizcochos en consultas de abogados sobre contribuciones, e a más se le dieron un par de calcetas finas a (Pedro Antonio de) Ynchaurre (Bikaria) en agasajo”. Dakusagunez, eranitzezko opari eta elkarrekikotasunen arteko nahasketak gaurrengungo pentsamoldeetatik Isabel Deunaren Komentuaren ekonomia entelegatzen oztopatzen du.

Seroretxearenganako mundu laikoaren eragin handiaren beste adierazbi-de bat dugu, gure eritziz. Eta ez bakarrik ezkontza-merkataritza konplexuan kokatzerik ez zeudenek bestelako konponbide bezala elizara jotzen zutenen artean (gogora bedi, era berean, kontzeptu biak azaltzeko garaikideen hitz berberen erabilpena; hau da “toma de estado”)<sup>34</sup>, moja batzuen portaeretan ere baizik: 1755eko Azaroak 30eko Bisitaldiaren arabera:

33. 1685. urteko datuak. Kopuruak liberatan.

34. XVII. mendeko hainbat urtez Durangoko Susana Deunaren Komentuan Zabala familia-ren menpea, bestalde, nahiko adierazgarria da. Hona hemen bertako Moja Nagusi batzu:

<i>Izen/abizenak</i>	<i>Data</i>
Angela Zabala	1633.XII.15
M <sup>a</sup> San Nicolás Zabala Churruca	1670.I.21
Ursula Clara Zabala	1701.IX.26

Iturriak: B.A.H.P.: Notal Atala: 72, 126 eta 151. paper sortak. Datu hauen bilketa burutzea elkartearen Artxibategiaren bidez ez digute, zoritxarrez, baimendu.

“...se manda a la madre abadesa guarde equidad y ponga orden en dicha conmutacion (jantzietakoa, alegia) atendiendo a la necesidad dichas religiosas desterrando el abuso que se puede originar conmutando algunas religiosas sin necesidad llevadas solo de la codicia y asi se manda a todas las religiosas no puedan conmutar habitos ni ponerlos para este efecto fuera del convento sin expresa licencia de la madre abadesa quien debiera procurar no se pongan en tiendas”.

Aspalditik errotutako gehiegikeria ez omen zen etentzen. Izan ere, 1752ko Azaroak 30eko Bisitaldian arautua izan zen:

“Que no permita la madre abadesa que las religiosas comuten mas habitos que los precisos para vestirse con la limosna de los viejos.”

Gozokiei dagokionez, berdin: Bisitaldi berean zera agintzen zen:

“Que ninguna religiosa se escuse de asistir a las horas del coro con el pretexto de hacer bizcocho para sí en particular.”

1755eko Azaroak 30ean erazarpena gogorkiango adieraziko zen:

“...se manda a la madre abadesa destierre la ambicion de hacer dulce las religiosas particulares y solo conceda que puedan hacerlos para regalarlos a sus parientes y bienhechores y a las religiosas que tuvieren alguna necesidad solo lo que bastare para remediarla. Y exorta su Pr. a todas las religiosas se abstengan cuanto les fuere dable de semejante comercio y trabajo.”

Komentuaren gozoki-ekoizpena, tamalez, guztiz ezezaguna dugu. Izan ere beronen adierazbide nagusienetarikoa den hileroko arraultz erosketek (aukeratutako garai osoan zehar eta nahiko multzo handitan –diru kopuru osoen arabera– ia etengabekoek, alegia) ez dute puntu honen jarraipenik baimentzen; horrez gain Komentuko hegazti kopuruetako gorabeherek desbiderape-nak sortarazi zituztelarik<sup>35</sup>. 1680ko Urtarrilean hamazortzi dozena erosi ziren hamabiko bakoitzeko 1,4 errealetan, hurrengo hilabetean erreal batetan hamahiru dozena izan zirelarik<sup>36</sup>.

Ezin izan dugu, era berean, gozoki kontsumoaren bilakaera gauzatu: txokolatea, bizkotxoa, lhauterietako torradak (“en Carnestolendas”) edota bes-telako gozokiak –ustez– nahaste-borrasteen azaltzen dira Komentuko Kontu-liburuetan. Azukre, kanela, almendrak, mahaspasak, etab. etengabe erosiko ziren garai osoan zehar. Hona hemen, berriro, arraultzen analisirako izandako arazo berbera: zein neurritan isladatzen du azukreak gozoki-ekoizpe-na, Komentuak hainbat erlauntza ere bazuela kontutan hartuta<sup>37</sup>?

---

35. Garisumetan edota gaisotasunetan –esaterako– bezalako bestelako zioengatik arraultz kontsumoak gora egin zezakeela ez da, bestalde, aiantzi behar (cf. supra).

36. Azkeneko prezio berbera pagatzen zuen Lekeitioko elkar-teak 1756an.

37. 1818ko Maiatzan, esaterako: “...se le tomaron tres colmenas a 59 reales cada una a Juan de Balsola para en cuenta de los réditos.”

Elikagaietako ordainak ezezik, argiak Komentua eta areatzatarren arteko aldearen beste adierazle esanguratsua dugu, nonbait; elizkizunetarako ezezik, norbere erabilpen pertsonalerako baliabideak izan omen zituztelako, 1752ko Azaroak 30eko Bisitaldiko agindu honek ematen duenez:

“Que en el verano despues de las nueve de la noche se retire cada religiosa a su celda y en el invierno despues de las ocho y media para que asi se guarde el silencio debido.”<sup>38</sup>

Jakina: gaitasun ekonomiko honek ez zekarren neurrigabeko edota gano-ragabeko erabilpena, iturri berberan azaltzen den modura:

“Que no permita la madre abadesa a las sacristanas gastar en dias solemnes ni en otros mas cera en los altares ni aranas que la precisamente necesaria.”

#### 4. SALNEURRIEN ANALISIA

Areatzako Isabel Deunaren Komentuko Kontu-liburuetak salneurriak behiki, ardo, olio, makailu, txokolate ta ezkoari dagokizkie. Baliokidetasunak direla eta, neurri ezberdinak parekatzeak lana oztopatu zigun. Olioa zela eta, bestalde, gaiari buruzko ezagupen mailaren ahulezia azaleratu zitzaigun. Libera eta arroaren arteko erlazioa, alde batetik, aldakorra izan zen noizbait<sup>39</sup>, honelako lauki honetan ikusten den legez<sup>40</sup>:

Data	Kopurua	Salneurria, erreal/arroa	Guztira, errealetan	Baliokidetzta, libera/arroa
1718.X	3 arroa 14 libera	39	139	24,8
1724.II	3 arroa 16 libera	29	109	21,09
1724.IX	3 arroa 15 libera	30	108	25
1730.II	12 arroa 6 libera	25	306	25

38. Noizbait lanparak erosi ziren: 1720ko Ekainean, esaterako, bi kandela erosi ziren hiru errealetan kriseilu bana. Gaiari buruzko berri gehiagorako, ikus. J. LANGE (2000).

39. Ikerketaren hainbat urtetan bi unitateren aldirerako erabilpena kontutan izanik, hogeita-bosteko balorea eman zaizkie banan banako baliokidetasuna egiaztatu ezin izan diren kasuei. Arazo berberari aurre egin behar izan zion E.J. HAMILTONek (1988: 138-139).

40. Are gehiago: noizbait kontuetako batuketetan akatsak aurkitu ditugunez gero, zalantzak areagotzen zaizkigu. Besteak beste, honako 1695eko Abuztuko datua:

“...costaron 6 fanegas y media de trigo 129 reales; sus precios, las 4 fanegas a 26 1/2 y las otras dos restantes a 24”

Olioeko zahagian erabilpena, bestalde, eztabaidagarria da halaber; beti ere edukinak aldatzen duela kontutan izanik<sup>41</sup>: 1703ko Abenduan: “un pellejo de aceite pesó 83 libras son 127,5 reales”; 1704ko Abuztuan “un pellejo de aceite por valor de 155 reales”; eta 1707ko Apirilean, azkenik, “un pellejo de aceite (...) 5 arrobas”.

Txanponen kasuan oso bestelako kontua dugu. Beronen oso tipologia murrizta izateak (dukata, erreal eta marauri, hain zuzen), gure ikerketa honen garai osoan zehar baliokidetza finkoak izanik, kalkuluak erraztu dizkigu oso. Badakigu, noski, txanpon horiek noizbait kontu-monetatzat hartuak izan zirela, beraiekin batera neurri ezberdinetako dobloiak, pisuak, ezkutuak, koroak, etab. ere erabiliko baitziren<sup>42</sup>. Erabilpen biak ezberdintzea nekez lor daiteke; geu, ondorioz, ezta saiatu ere.

Aipatutako produktuen erosketetako aldizkatasunak (edota beraien salneurrien agerpenak) ez digu oso zehaztasun maila homogenezirik izan baimendu. Honek, berauen ezaugarri diferenteeekin batera, era ezberdinetako tratamendu eta elkarketa eskatzen ditu. Honako hau aukeratu dugu:

Lehenik, Batazbesteko Mugikorren arteko aldizkatasunean erabateko parekotasunik ez dagoela nabarmentzen da. Hamabitako modulua erabili izan dugu behiakiarekin salneurrietako hilabeteetako gorabeherak indargabetzeko; azken batez berauek iraupen luzeko aldaketak izkutatuzeko baino ez dutelako balio. Gainerako produktu guztietarako, berriz, erdiko datuan oinarritutako hamalautako moduluko Batazbesteko Mugikorra erabili izan da<sup>43</sup>.

Bigarrenik, behikia eta ardoa dira agiritako bi produkturik osatuenak (2.382 eta 2.424 datuarekin, hain zuzen), hilabetero erosten direlako aipatutako garai osoan zehar. Hori dela eta hilabeteroko gorabeherak zehazkiago irudikatzen dituzte, bestelako aldaketetako erritmoak ahaztu gabe. Ezaguna denez, bestalde, galkortasunak –kasu batetan– eta garraiatzeko zailtasunak –bestean– eragiten dituzte erosketetako kadentziak; betiere kontutan hartuta garia luzaro gordetzeko gaitasunaz baliatuko zela Komentua, gaurregungo ikerketen kalterako<sup>44</sup>. Baina, aldiberean, behikia eta ardoa erritmo ekonomiko ezberdinen adierazleak dira: lehendabizikoak eskualdeko gorabehera ekonomikoen berri ematen du; bigarrenak, berriz, zabalera handiagoko

---

41. Oztopo hau gainditu ahal izan da kontua balorea zehazten zeneko kasuetan eta libera edota arroetako baliokidetasuna. Hau, tamalez, ez da etengabekoa izan.

42. Garaiko txanponetako aniztasunaren katalogo paregabe eta, aldiberean, txanpon-zigilatzeari buruz indarrean zegoen legeriaren hausturaren lekuko fidagarri dugu Bilboko *Contraste* delakoak ziren Nicolas de Lecea eta José Ignacio Pizarrok eragindako moneta faltsuari buruzko expediente judiziala. Bertan barneratu ziren bahitutako hainbat txanpon estakurudunak (gaurreguneraino, noski, aztarnak baino ez dute iraun). B.F.A.A.: A.J.: Korreg.: 593. p.s., 6. znbk. (1771/1778).

43. Ikus. A. EIRAS ROEL eta R. USERO GONZÁLEZ (1975: 656). Hemen erabat bat gatzoz berauen erizpidearekin, honako prozedura honek epe luzeko aldaketak zazpiko moduluko Batazbesteko Mugikorrek baino hobeto azaltzen dituelako. Era berean, azkenengo datuan oinarritutako hamalautako moduluko Batazbesteko Mugikorrek hobetzen ditu, aldaketetako adierazpenetako berauen atzerapena zuzentzen duelarik. Noski: aldeztu aurretik aipatutako kriterio gehienak urte hartutako datuetarako baldin badira ere, guk –ezer hobeagorik topatu ezinean– hilabeteroko datuetarako erabili izan ditugu.

44. J. LANGE (1996: 192).

zirkuituetaz. Horretaz gain, itsasoz bestaldeko produktuak (makailua, txokolatea eta ezkoa, alegia) hirugarren multzo batetan ezberdintzea posiblea zen<sup>45</sup>.

Aurreko baieztapenean oinarriturik, datu guztien sailkapena garraioaren jatorriaren arabera da, gehiagotan erabiltzen den produktuaren izaeraren arabera (nekazal produktuak vs. nekazal ez direnak, alegia) alboratuz<sup>46</sup>, P. VILARen eredia jarraituz<sup>47</sup>. Hiru multzo, beraz, ezberdin daitezke:


- A) Arratiar jatorriko produktuak: behikia eta artoa.
- B) Penintsulako barnekaldeko jatorriko produktuak: ardoa, garia eta olioak.
- C) Itsasotik heltzen diren produktuak: makailua, txokolatea eta ezkoa.

#### 4.1. Autokontsumoa: Behikia eta Artoa

Eskualdean bertan produzitutakoak, gizarte mailako *status* delakoan edota datuetako kalitatean ezberdintzen dira.

**Behikia** mendikoa edota aranekoa izan daiteke. Bi kalitate ezberdinak argi nabarmentzen dira grafikoa, nola baita negua eta udaren arteko merkaturatze ezberdinak ere<sup>48</sup>.

1. GRAFIKOA: Behikia eta Artoaren salneurriak. B.M. 12 eta 14.




45. Jakina, hirugarren multzo honen fidagarritasunaren mugak onartzea –non 353, 128 eta 89 datu besterik ez dauden– zilegi da.

46. W. ABEL (1974: 159-171), E. LABROUSSE (1980: 171-173), edota E.J. HAMILTON (1988: 205-223), ezagunenak baino ez aipatzeagatik.

47. P. VILAR (1987: 285-397).

48. Behikiaren bi kalitateen arteko banaketaren arrazoi bakarra mantenimenduaren kostua da, nonbait. Eredu berbera azaldu zen alde aurreko Zeberioiko ikerketetan: J. LANGE (1996: 134).

## 2. GRAFIKOA: Behikiaren jatorrizko datuak 1685/1695.




Behikiaren abastoa Udal Ordenantzen bidez arautzen zenez gero, garestitzea motela eta etengabekoa izango da XVIII. mende osoan zehar. Ez dago, beraz, inolako ziklorik<sup>49</sup>. Garai osoan zeharreko garestitze prozesu hori hastapeneko salneurria bikoiztera nekez helduko da, XVIII. mendeko bigarren erdialdean bizkortu ba zen ere. Mende amaierako gudetako eragina, aitzitik, larria eta sakonekoa izango zen: 1794tik hasita eta Napoleonen Garaiko Gudak bitartean behikiaren salneurrien aldaketak etengabekoak izango ziren. Gorabehera hauek paregabekoak izango ziren 1814ko lehendabiziko hilabetee-tan (une hartan 160 marauriraino heldu zen libera behiki bakoitzeko). Armada kanpotarren ibilaldien ondorengoko aztarna ezinbestekoa izanik, gerra aurreko salneurrietako mailak ez ziren 1819raino berreskuratuko; azkeneko hauek, bestalde, oso beherakada bortitzari esker. Dena dela, merketze hau ez zen Lehen Guda Karlista hasi arte etenduko. Une hartan, behin berriro, salneurriek gora egingo zuten (betiere nahiko motel iraunkortasuna edota trinkotasunari dagokionez). Gerra ondorengoko oreka berreskuratuko eta gero, geldialdia nagusitu-tuko zen berriro 1843 eta 1854 bitartean; jarraian igonaldi geldoa baina eten-gabekoari ekiteko. Berreskurapen hau hirurogeigarreneko hamarkada amaierako krisialdiaren testuinguruan baino ez zen geldituko; ondoren Napoleon Garaiko Gudetatik ezezagunak ziren salneurriak berreskuratze-ko –jakina denez– Bigarren Gerra Karlistaren testuinguruan. Baina garai honetako libera bakoitzeko 72 maraurik ez zuten aurreko urteetako datuekin horrenbeste alderik suposatzen. Azkenengo Karlistadaren eragina, beraz, beste produktue-tan baino garrantzitsuagoa izanda ere, ez omen zen erabatekoa izan. Guda amaitutakoan, bestalde, igonaldiaren jarraikortasuna isladatzen da.

49. Berrogeigarreneko hamarkada hasierako fluktuazioak, 1755ekoak (Gipuzkoan izandako Okelaren Matxinada gogora bedi), edota hirurogeigarreneko hamarkada amaierakoak gutxiespe-nekoak dira. Izan ere, datu gehien biltzen zituen produktua izan arren, batere adierazgarririk ez zela erreparatu genuen inflazio prozesu orokorra baino ez zuelako isladatzen, hiribilduko ziklo ekonomikoen berri eman gabe.

Lehen urteetako **artoaren** datu faltak inportantzi gehiegirik ez duela uste dugu, nekez kontsumitzen den produktuaren hazkuntza isolatu eta irregularrara, alde batetik, eta eguneroko oinarrizko elikagaia zen gariaren ordez hedapen orokorra lortzen duen produktua, bestetik, ezberdinu behar direlako<sup>50</sup>. Artoaren sarrera *–grosso modo–* eta gure iturrietako agerpena (XVIII. mende amaieran) aldiberekoak direla pentsatzeko arazorik ez dugu; nahiz eta Isabel Deunaren Komentu eta ingurune laikoan artoaren erabilpen berbera ez izan. Garai hartan, gudetako testuingurua zela medio, oso iraupen gutxiko eta anplitude handiko gorabeherak ezagutuko ziren (salneurriak hirukoitzuko ziren 1815eko Abuztuan, 72 erreal fanega bakoitzeko ordainduko zela). Ondorengoko nazioarteko baketze prozesuak guda aurreko mailen berreskurapena ekarriko zuen; beroni esker faktore endogenoen gorabeherak argiago ikus daitezke (1824 eta 1825eko uzta kazkarrak, esaterako). Gure datuetako gerretako islada, behin berriro, berantiarra da (1838 eta 1839ekoa, alegia) eta aurreko mende amaiera eta mende honen hasierako bizkortasunarik gabekoa. Anplitude eta trinkotasun handiagoko gorabeherak izanik, biurtero azaltzen dira 1840 eta 1870 bitartean. Testuinguru honetan, hirurogeigarreneko hamarkada amaierako krisialdi orokorrak eta Bigarren Guda Karlista izango ziren azkenengo gertakizun nabarmenekoak.

## 4.2. Mesetako Inportazioak: Ardoa, Garia eta Olioia

### 3. GRAFIKOA: Garia, ardoa eta olioia (14 B.M.). Zeberioiko olioia halaber (lerro ezberdinez).



**Ardoari** dagokionez, ikasitako lehendabiziko hamarkadetan iraupen berdineko eta kadentzia iraunkorreko zikloak errepikatuko ziren lehendabiziko

50. Euskal historiografian artoaren sarrera ahalik eta gehien atzeratzea, jatorrizko aintzineko datoren bila nonbait, maiz askotan ezagututako ahalegina da. Cf. L.M<sup>a</sup> BILBAO (1977: 168) edo J.M. GONZÁLEZ CEMPELLÍN (1990: 89-110; 99 bereziki). Azken bolada honetan, ordea, gaiaren berrikuspena dugu, nolabait, hedapena XVIII. menderaino atzeratuz: A.M<sup>a</sup> CANALES CANO (1997: 200); edota R. CONDE FUERTE (1997: 104).

hamarkadetan. Gorabeherak motelduko ziren behin XVIII. mendeko lehendabiziko laurdena pasatu ondoren eta mende honen amaierako gatazkak suertatu bitartean<sup>51</sup>. Hau baino askoz ere nabarmenagoa da garai osoan zehar mantentzen den salneurri aldagabea, behin gorabehera ziklikoak alde batera utzita. Azkenengo hau produktuaren izaeraren aldaketaren ondorioztat jotzen dugu, *artoaren iraultza* deitutako prozesuaren ondorioz. Beronen zabalpenak –gariaren kalterako– produktibitatearen gorakada ekarri zuen lugorriaren desagertzearen bitartez; era berean alde zurretik sagastiak ziren eremu berriak landatu ziren. Etxerako sagardo-ekoizpenaren beharakada honen ondorioz, Bizkaiko nekazal eremua integrazio prozesu batetan murgiltzen hasi zen, Nafarroa eta Arabatik gero eta gari eta ardo ugariago inportatu behar zela<sup>52</sup>. Aldiberean, alderantziz, barnekaldeko produktugile haiek, XVIII. mendeko lehendabiziko erdialdean, estualdia ezagutu zuten, non Bizkaian gariaren eskaria gero eta murriztagoa zen bitartean, zerealaren salneurria jaitsi zen (egoera honen hobekuntzarik ez zuten ezagutuko mende haren bigarren erdialdean biztanleriaren gorakadak eskaria mailak berriro baretu arte). Kinka larri honek ardo ekoizpenerako espezializazioa bultzatu zuen<sup>53</sup>. Zeberion, adibidez, Arabako ardoaren kontsumoa hirukoiztu zen 1711 eta 1731 bitartean<sup>54</sup>. Arabako hegoaldean, berriz, ardo zuria bikoiztu egin zen 1666/1675etik 1720/1730era<sup>55</sup>. Lizarran, bestalde, ekoizpenaren biderkatzaileria bi t'erdikoa izan zen<sup>56</sup>. Barnekaldeko ardoaren hedapenari esker, salneurriaren beharakada 1710 eta 1730 bitartean ezagutu zela uste dugu, mendeen zehar erabat finkatuko zelarik. Jarraikortasun hau, azkenik, etendurik geldituko zen: 1787an hasitako igoera geldoa 1793an bizkortuko zen, eta –1798 eta 1803an gorengo mailak lortu ondoren– Napoleonen Garaiko Gudetan ezohizko maila altuak ezagutuko ziren. Baina, maila altukoaldi hauek (aurreko salneurrietako maila bikoitzek, alegia), nolabait trinkotasun eta iraupen gutxikoek, bi inflexio-puntutan zatiturik, azkenengo gorengo maila ezagutuko zuten guda amaitutakoan. Hala eta guztiz ere, eta guda aurreko mailak berreskuratzen aritu ondoren, Lehen Guda Karlistak alde aurreko gatazka baino bortizkiago joko zuen, urte hauetako igoeraren arabera. Behin berriro, guda ondorengoko aldietan aurreko mailetara itzultzen da. Oraingo honetan, dena dela, jarraikortasun eskasa izango zuen: berrogeitamarreko hamarkadaren erdialdean ardoaren gorengo mailetaraino eramango zuen igoera motela (baina etengabekoa) hasiko zela. Susperraldi hau hirurogeigarreneko hamarkadaren bigarren erdialdean baino ez da arinki geldituko (beti ere

51. Egia esan, salneurrien gorabeheretako arindura Batazbesteko Mugikorraren erabilpenaren ondorio zuzena dugu; jatorrizko datuetan ikus daitekeen legez. Cf. J. LANGE (1996: 193).

52. L.M<sup>o</sup> BILBAO eta E. FERNÁNDEZ DE PINEDO (1984: 142-144).

53. Alkohol gehiago duen produktu baten kontsumoaren igoerak sortaraz dezakeen balorapenetatik kanpo, fenomeno hau azaltzeko batazbesteko jan-neurri urrietarako edukin kalorikoa aipatu beharra dago, nola baita –hiribilduetan bereziki– beronen izaera higienikoa, ura edatea oso arriskutsua izatearren.

54. J. LANGE (1996: 180).

55. L.M<sup>o</sup> BILBAO eta E. FERNÁNDEZ DE PINEDO (1984: 146).

56. A. FLORISTÁN IMIZCOZ (1982: 254).



aldez aurreko mailak ez zirela berriro berreskuratuko); pasa den mendeko azkenengo gudan maila motelak izango zirelarik. Baina salneurriaren etengabeko igoera honek, aldez aurreko hamarkadetatik hasita, geldiezinakoa ematen zuen hurrengo urteetarako.

Eguneroko elikaduran artoaren hedapenaren ondorioz (**gariaren** kalte, azken batez beronen orde zabalzten delako), azkenengo honek gizarte mailako *status* delakoa eraldatzen du, pixkanaka eta ohartezinik gorengo mailako mahaietan baino ez dagoen luxuzko elikagaia bilakatuz<sup>57</sup>. Salneurrietan, beraz, distortsio sakonak sartzen dira. Are gehiago: produktuaren maila sozialaren eraldaketaz aparte, maiz askotan bi kalitate ezberdinak –bertakoa (“de la tierra”) eta Arabakoa– nahasturik azaltzen zaizkigu, bakoitza ezberdintzea noizbait ezinezkoa izaten zaigula. Arrakasta gutxiagokoa den lehendabizikoa bigarrena baino murriztagoa izaten da; betiere kopuru txikiko erosketetan, Arratialeko ekoizpena urria izateagatik<sup>58</sup>. Edozelan ere, egin beharreko oharpen metodologikoa dugu gure datuen fidagarritasuna neurtzean.

*Mutatis mutandis*, mugapen hau ere olioari<sup>59</sup> ere luza dakioke. Normalean mandazainen bidez Arabatik ekartzen da oso kopuru handitan; betiere bestelako erosketa txikiagoak –askoz salneurri garestiagotan, sarritan– Areatzako dendan gauzatzen direlarik<sup>60</sup>.

Gariaren salneurriak izugarritzko gorabehera handiak ezagutuko zituen bi mendeen arteko tartean –Mugarrietako Eraldaketagatiko Matxinada baino lehenagoko nekazal krisialdiaren testuinguruan, hain zuzen<sup>61</sup>. Hortik aurrera, gorabeherak intentsitate aldetik motelduko ziren, nahiz eta nabarmenki jarraitu tarte irregularretan. Baina aldiberean, XVIII. mendeko bigarren erdialdean salneurrien gorakada motela izango zen, non larogeita hamarren erdialdean salneurrien gorakada motela izango zen, non larogeita hamarren erdialdean salneurrien gorakada motela izango zen, non larogeita hamarren erdialdean salneurrien gorakada motela izango zen (bikoizteko gauza ez ba ziren ere). Nabarmentzekoa da, puntu honetan, garia eta artoaren arteko parekotasuna ohartaraztea: gudetako eraginak aldebereko oso ziklo antzekoak sortarazten ditu (trinkotasun aldetik nola

---

57. Ikus. M. LARRAMENDI (1985: 65-66).

58. 1709ko Azaroko erosketa honako hau dugu: “5 anegas de trigo con sus portes 170 rs (33,3 erreal fanega bakoitzeko, alegia), que con una anega más de la tierra en 30 rs hacen 200 rs”.

59. Zeberioko olioaren datuetarako iturriak honako hauek ditugu: Z.U.A.: Olabarrietako Tomas Deuna, 1695 eta 1749 bitarteko Fabrika-liburua; B.E.A.H.: Zeberio, Olabarrietako Tomas Deuna, 1753 eta 1802 bitarteko Fabrika-liburua.

60. 1713ko Otsailean ekarritako olioaren salneurria 38 errealetakoa izan zen libera bakoitzeko; bertako dendarena (*abacería* delakoarena, alegia) 43,75 errealetakoa zen bitartean. Hau bezalako kasuak, nola baita kontu bereko salneurri eta kalitate ezberdinen arteko bestelako batuketak guztiak ere, erabili izan ditugu baldin eta erositako kantitatea zehazten ba zen ere, diru kopuru osoa eta kantitatearen arteko zatiketa kalkulatuz. Emaitza hau, gure eritziz, Komentuaren erosketen azterketarako produktu berberaren salneurri ezberdinen batzbestekoa (non batzutan azaltzen ziren izugarritzko salneurri garestiak erabat baztergarriak ziren) baino adierazle esanguratsuago deritzogu.

61. Garai honetako egoera ekonomikoari buruzko ikuspegi orokorrerako, J.J. LABORDA (1977: 136-181).

baita iraupen aldetik ere)<sup>62</sup>. Behin nazioarteko testuingurua baretuta, salneurrietako beherapena azkarra izango zen (nahiz eta ardoaren kasuan baino astiroagoa izan), eta berriro guda aurreko mailetara itzuliko zen 1819an. 1833 eta 1839 bitarteko Karlistadak bere aztarna utziko zuen grafikoa, honako honetan ere islada berantiarra (1838tik aurreragokoa, alegia) ba zen ere. Baina eragin honek ez zuen luzaro iraungo: 1839tik aurrera, berriro, gorabeherak areagotuko ziren; 1857 eta 1858rako–1856ko nazioarteko krisialdiaren eragina behin gainditu eta gero– gehienezko mailak gailenduko zirela. Intentsitate ta iraupen aldakorrekoak izanik, aldaketa hauek Bigarren Guda Karlistaren eraginik ez zuten izango, beraien etengabeko hazkunderaren erritmo propioan murgilduta. Honela amaituko da, beraz, aukeraturako garaia<sup>63</sup>.

**Olioaren ezaugarriak aipagarriena, zalantzarik gabe, anplitude oszilazaila dugu, hasieratik eta amaiera bitartean irauten duelarik.** XVIII. mende hasierako bi igoera nagusienak Ondorengotza Gerraz eta Mugarrietako Eraldaketagatik Matxinadaz nekez alden daiteke. Hortik aurrera zikloak motelduko ziren, mende erdialdeko geldiunean sartzeko; hortik aurrera anplitude handiagoko etengabeko hazkundera nagusituko zen. Igoera honen abiadura arinduko da mende amaieran, gudak direla medio (1813ko Abuztuan arroa bakoitzeko 145 errealetaraino igoko zen salneurria, aurreko hamarkadako zenbait konturen bikoitza, alegia). Behin 1819an gerra aurreko maila berreskuratuta, joera orokorrak, berriz, etengabeko beherakada ezagutuko zuen. Beronen aldaketa bakarra Lehen Guda Karlistaren ondoriozkoa izango zen. Jakina, azkenengo hau erabat logikoa zen, betiere gatazkaren ondorioz Iberiar Penintsulako barnekaldearekiko merkatal hartu-emanak sarritan etendurik izan zirela kontutan izanik. Izan ere, mugarrien eraldaketak (1841eko Urriak 29ko Erret Eginkizunak) ez omen zuen grafikoa eragin handirik izan: agian, garai honetarako barnekaldeko eskualdeetako merkatuekiko integrazio prozesua –ustez– oso aurreraturik egoteagatik, legez kanpoko arau honek ez zuen eraginik izan. Beste hainbat faktorek –1856ko Krimeako Gerrak, edota hirurogeigarreneko hamarkada amaierako krisialdiak, esaterako– askoz inportantzi handiago izango dute, kanpoko beste zenbait merkatuekiko bateratze prozesuaren berri ematen digutelarik.

Ikasitako garaian zehar Zeberio eta Areatzako olioak parekatuz gero, antzeko ondorioak inferi daitezke. Izan ere, eskualde mailako integrazio prozesuaren testuinguruan (beste hainbat produktu ere barne ditugularik) uler daiteke, non kostu eta aldaketetako erritmoak parekideagoaz diren, hedapen handiagoko merkatal egitura eta zirkuitoetan murgilduz.


---

62. 1797/1798, 1810 edota 1814 urteetako salbuespenak, uzten kopuruetako gorabeheren eraginagatik, edota merkatal komunikabide-sareetako blokeoaren ondorioz, besteak beste, azal daitezke.

63. Aipaturako urteetarako, aldaketarik nagusienak honako urte hauetan ditugu: 1837 eta 1838an, 1857an, 1869an, edota 1879 eta 1880an.

Gogora bedi, orain arte esandako guztiaz, frantziarren aurkako liskarren ondorengoko gorabehera guztietan behikia, artoa, ardoa, garia eta olioaren arteko parekotasun nabarmenak azaltzen direla.

4. GRAFIKOA: Areatza eta Zeberioako olioak (bilakaera ezberdinak eta parekatze prozesua).



**4.3. Itsasoz Bestaldeko Merkataritza: Makailua, Txokolatea eta Ezkoa**

Hemen itsasoz bestaldeko merkataritzak sortarazitako erritmoak ditugu. Izan ere, bertakoak dira guztiak: Virginia, Norvegia, Finlandia edota Eskoziakoak (makailuarentzat); Caracas edo Guayaquilekoak (txokolatearen kasuan); edota Europako Iparralde eta Ekialdekoak (ezkoarentzat).


Gure iturrietan aurkitutako datuen kopurua ez da, tamalez, nahi genuen bezain altua izan; beste produktuen ugaritasunetik oso alde handia dagoelarik (batez ere txokolate eta ezkoaren kasuetan). Makailua dela eta, bestalde, produktu edota kalitate ezberdinen nahasketa aipatu beharra dago<sup>64</sup>.

64. Jatorriaren arabera, adibidez:

Data	Eskozia	Norvegia
1830.IX	21 erreal/arroa	17,5 erreal/arroa
1831.X	24 erreal/arroa	21,5 erreal/arroa

Horrez gain, oso salneurri altuan Areatzako *abacería* delakoan egindako noizbehinkako kopuru txikitako erosketak aipatu behar...

## 5. GRAFIKOA: Makailua, txokolatea eta ezkoa (B.M. 14).



**Makailuaren** gorabeherak nazioarteko koiunturaren arabera azaltzea erraza da oso. Augsburgoko Ligaren Gerra zela eta Frantziar Estatu eta Estatu Espainolaren aurrez aurreko borrokak XVII. mende amaierako igoerak azalduko lituzke. Era berean, Ondorengotza Gerrak (gogora bedi Armada ingelesaren partaidetza 1702tik) eragingo lituzke XVIII. mende hasierakoak. Beste horrenbeste esan dezakegu hogeitamarreko hamarkada amaieraz eta berrogeigarrenekoaz, edota hirurogeigarreneko hamarkada hasieraz –gogora bitez Jenkinsen belarria, Austriako Ondorengotza edota Britainia Handiaren kontrako 1762ko erasoak<sup>65</sup>. Aurreko gatazka hauek, dena dela, oso gorabehera motelak eragin zituzten, handik aurrera izandako gerrenatik suertatutakoe-kin parekatuz gero. Izan ere, 1779 eta 1783 bitarteko Britainia Handiaren aurkako guda oso eragin sakonekoa izango da gure grafikoa. Napoleonen Garaiko Gudak direla medio, bestalde, beste horrenbeste esan dezakegu. XIX. mendean, azkenik, Karlstadt ondoriotako gorabeherak dira nabarmenak, produktu horien abastua betetzeko zailtasunak direla kausa.

Produktu hau eta jatorri ezberdineko besteen arteko bilakaerak konparatzea irakurleak bere kabuz egin dezan, hemengo deskribaketa gehiegí ez luzatzeagatik. Eginkizun horretatik guk ateratako ondorioak jarraian azaltzen ditugu. Aldez aurretik, dena dela, zera esan beharko: **txokolate** eta **ezkoaren** bilakaerak gutxienezko bermetasunaz aztertzeo datuak falta badituzte ere, ez dugula uste makailuarenak urrunegirik daudenik; merkatal sare berdinetatik bideratuko zirela kontutan izanik<sup>66</sup>.

65. Ez da antzematen, berriz, 1713ko Apirilak 11ko Utrechtgo Bake Akordioaren ondoriozko euskal flotaren kalterako izandako Britainiar monopolioaren eragina Ternuako kostaldean.

66. Jakina, ezkoaren jatorria nolabait ezezaguna dugu: maiz askotan inportazioko produktua omen zela egiaztatzeo argibideak izanda ere, bertako ekoizpenaren garrantzia neurtzeo erarik -tamalez- ez dugulako izan...

Ez dugu, dena den, 1820 eta 1860 bitartean –ustez– luzatu zen txokolatearen izaeraren aldaketa apala ohartarazi gabe utzi nahi. Mexikok, Guatemalak eta Venezuelak 1520tik Metropolia hornitzen zuten produktu honetaz<sup>67</sup>. XVII eta XVIII. mendeetan etengabeko eskaera handiagotu zela<sup>68</sup>, holandarrek izan zuten beronen monopolioa, 1728ko Irailak 25eko Erret Gutunaren bidez ezaguna dugun Karakasko Gipuzkoar Erret Konpainiaren sorrera izan arte. Konpainia honek merkatal harreman hauek bere gain hartzean produktuaren salneurria erdira jaitsi zen. Izan ere, Konpainiak zeuzkan berrogeita zortzi itsasontziek Euskal Herrian izandako produktuaren hedapena gauzatu zuten<sup>69</sup>. Produktu baten *status* delakoaren aldaketak (kontsumo murriztekoa izatetik orokortzera, alegia) soberako eskaintzaren denboraldia dakarrela –non beronen salneurria nabarmen jaisten den– uste dugu. Dagokigun kasuan, ustez, fenomeno hori 1820 eta 1860 bitartean kokatzen delakoan gaude, non 1850eko Uztaileko gutxienezko salneurria –3,8 erreal/libera bakoitzeko– nabarmentzen den.

## **5. AREATZAKO SALNEURRIEN ESANNAHIA ETA BERONEN HEDAPENA. EXTRAPOLAZIOA (ETA BERONEN MUGAPENAK) BIZKAIKO KOIUNTURA EKONOMIKOAREN ANALISIRAKO**

Orain arteko emaitzek Mikrohistoriaren esparrua baino ez dute gailentzen, bai aztertutako lurraldearen neurriengatik, nola baita –ustez– ingurunearekiko eremu horren komunikabide sareen ahalbideengatik ere. Horrek, dena den, ez du aitzakirik suposatzen aurreko datuak, berez, Bizkaiko eremu osorako zabaltzeko. Arazoa argi dugu: zein neurritan bereganatzen du Bilbok itsasotik datorren merkataritza, Jaurerriko gainontzeko merkatuek baino salneurri merkeagoak izanik, Kontsuletxearen erakargarritasunari esker? Edo, bestela esanda: zentzu dira –egotekotan– tokian tokiko merkatuen homogeneotasun edota integrazio mailak? Aro Garaikideari edota industrializazioari baino ez dagokion kontzeptua ote dugu, ala Aintzin Erregimenean ere aplikatu daiteke?

Edonola ere, eta azterketa nagusia jasotako alde aurreko iturriaren fidagarritasuna neurtzeko asmoz, beste zenbait tokitako hainbat produkturen salneurriekin parekatu dugu: Bilbo, Belandia, Lekeitio, Amoroto, Mendexa, Ereño eta Ermuko gari edota artoarenekin, hain zuzen ere (betiere Bilboren

---

67. J.M<sup>a</sup> GORROTXATEGI PIKASARRI (1987: 146-199). Horra nondik ondoko lerroak atera ditugun...

68. Txokolatearen ezaugarri gastronomikoak alde batera utzita, herri medikuntzan izandako produktuaren erabilpenak, nola baita elizgizonek erakutsitako harrera onak bere zabalpena erraztu zuten.

69. Azkenengo ehun urte hauetan ehundaka dira txokolate arloan aritutakoak Euskal Herrian. Herri bakoitzean bazegoen bederen bat; eta hiribildu handietan hamabinaka. Tolosan, esaterako, hamar txokolatari ziren 1861ean. Irunean, berriz, berrogeita hiru 1888an. Cf. J.M<sup>a</sup> GORROTXATEGI PIKASARRI (1987: 177).

kasuan garia baino ez dugula eskuragarri izan kontutan hartuta)<sup>70</sup>. Egia esan, beste serie guzti hauek Areatzakoak baino datu eskasagoak biltzen dituzte (Lekeitioko Komentuaren salbuespenarekin, urtean salneurri bakarreakoak dira guztiak; aldezturik aztertutako produktuen aniztasunaren murriztapena ez aipatzearen...)<sup>71</sup>. Baina azkenengo sail honen abantaila lurraldeetako hedapena dugu, non nekazal eremuak eta hiribilduak; kostaldekoak zein barnekaldekoak barneratzen diren; hipotesien ardatz nagusia den Bilboren kasu paregabea, noski, ahaztu gabe.

Ez dirudi hausnarketa hau bidegabekeria denik. Izan ere P. VILAREk berak<sup>72</sup> mesfidantza erakusten zuen Bartzelonako Santa Creuseko datu soilen arabera Katalunia osorako konklusioak zabaltzeko. Pareka bedi, ildo beretik, E.J. HAMILTONen paregabeko agirieta bildumarekin<sup>73</sup>; honek –halaber– sinesgaiztasun metodologikoak izan zituelako bere konklusioak orokortzerakoan. Askoz arriskutsuago deritzogu, berriz, geu saiatu ez garen tokian tokiko zenbait serieen batzbestekoaren kalkulua lurralde osoaren ustezko bilakaeraren islada modura erabiltzeari, Gipuzkoaren kasurako proposatu izan den bezala<sup>74</sup>.

Hona hemen gure emaitzak<sup>75</sup>:

---

70. Iturriak:

–Amoroto: B.E.A.H.: Amoroto, Martin Deuna, Fabrika-liburuak, cit. R. URIARTE AYO (1988: 275-276).

–Belandia: B.E.A.H.: Belandia, Santa Eulalia: 1550 eta 1878 bitarteko Fabrika-liburuak.

–Bilbo: Bilboko Gurutzearen Komentuko Artxibategi Historikoa (B.G.K.A.H.): Kontu-liburuak, cit. M. MAULEÓN (1961: 206).

–Ereño: B.E.A.H.: Ereño, Mikel Deuna: Arrosarioaren Kofradia, 1767 eta 1951 bitarteko Kontu-liburuak.

–Ermua: B.E.A.H.: Ermua, Santiago: Fabrika-liburuak, cit. J.A. PINEDO OTAOLA (1996).

–Lekeitio:

1. Lekeitio, Andra Mari: Kapituluak, 1771 eta 1836, eta 1836 eta 1918 bitarteko Kontu-liburuak; 1730 eta 1780 bitarteko Fabrika-liburua.

2. L.D.K.A.H.: 1756 eta 1859 bitarteko Kontu-liburua (ordainak).

–Mendexa: B.E.A.H.: Mendexa, Kepa Deuna, 1760 eta 1843 bitarteko Fabrika-Liburua.

71. Lekeitioko Domingotarren Komentuaren kasuan ere Areatzakoarenak baino datu eskasagoak ditugu, hilabeteroko erosketetan ez baitzen sarritan salneurria edota kopurua zehazten (non ordainketaren bitarteko salneurriaren kalkulua bidegabetzen den). Hori dela eta, gure ustez, aldezturik Areatzako datuei emandako lehenetasuna zilegi da, Isabel Deunaren Komentuaren datuak ezohizkoak direlako.

72. P. VILAR (1987: 289).


73. E.J. HAMILTON (1988: 26-27, 130).

74. S. PIQUERO ZARAUZ, I. CARRIÓN ARREGUI eta I. MUGARTEGUI EGÚÍA (1998: 445). Egileek beraiek ere eragiketaren balioarritasuna zalantzatan jartzen dute, nonbait.

75. Hogeita lau modulutako Batzbesteko Mugikorak erabili izan ditugu urtean behineko datu bakarretan oinarritutako sailak eta Areatzako hilabeterokoak nolobait baretzeko.


Produktua bertakoa izanik, lurraldeko bilakaeraren adierazle ezin fidagarriago dugulakoan gaude, kanpoko produktuetan ez bezala, landako faktoreek izan zezaketen eraginatik erabat kanpo gelditzeagatik (azkenengo hauetan sarritan ezin dira inportatzailearen beste batzuetatik ezberdindu).

6. GRAFIKOA: 1750/1850 bitarteko Bizkaiko Artoa (B.M. 24).



Aurreko sailletako konparaketa eginez gero, begibistan da berdintasunak ezberdintasunen gainetik nagusitzen direla. Azkenengo hauek gorabeheretako intentsitatez zein anplitudez azaleratzen badira ere, joera orokorrek -inflazio puntuetan gutxienezko gorabeherak onartuz gero- behin eta berriz errepikatzen dira serie guztietan. Salneurrietan, beraz, nahiko homogeneous maila nabarmena inferi daiteke. Halaber, Bizkaiko Jaurerriko oso lurralde zabaleko bilakaera ekonomikoari dagokionez, XVIII. mendeko erdialdetik bederen. Honek, tamalez, ez du oraingoz Bilboko hipotesiari buruzko ezer handirik suposatzen. Horrez gain, errefusa daiteke orain arte esandakoa, erakutsitako argumentuak soslaizkoak eta murrizak izateagatik.

7. GRAFIKOA: 1700/1850 bitarteko Bizkaiko Garia (B.M. 24).



Anplitude kronologiko nabarmeneko dugun serie hauetan Areatza, Bilbo eta Amorotoko salneurrietako bilakaeraren konparaketa kontutan har bedi. Izan ere, oso garai goizdanik eremu ezberdinen arteko bilakaeretako aldebereotasun nabaria dago (bai bilakaera berari, nola baita iraunkortasunari eta intentsitateari dagokienez ere). Honek Isabel Deunaren salneurrietako analisia berrindartzen du (iturri honen zehaztasun maila oparoagoa gogoratu besterik ez dago, behin berriro). Izan ere, XVIII. mendeko erdialdetik datu berri hauek erakusten duten serie guztietako gorabeheren arteko koerlazioak (ezberdintasunak –*grosso modo*– anplitudean, iraunkortasunean, inflexio puntuetako kronologian eta batzbestekoetan bakarrik azalartzen dira) berrindartzen du gure jatorrizko hipotesia. Lehendabiziko hiru ezberdintasunak alde batera utzita (ez dugulako nahi berriro oraingo honetako ildo nagusitik kanpo gelditzen den deskribapen maila hutsalean murgildu nahi) zeozer aipatu gura dugu azkenengoari buruzkoak: XIX. mendeko hasiera arte Ermuak mantentzen dituen beste udalerrri guztiek baino salneurri altuagoak (aldi horretatik aurrera, berriz, alderantzizkoa izango



zen joera), alde batetik; eta garai osoan zehar gainerako guztien kontrako bilakera izaten duen Belandiaren kasua, bestetik. Jokabide hauek neurri batez portuetako kokapenari lepora baldin badiezaizkiokegu ere (Deba Haraneko zein Arabako bilakabideekin harremanduagoak, hain zuzen ere); nekez bete daiteke baieztapen hau Belandiaren kasuan, garia ekoizten duten barnekaldeko nekazal lurraldeetatik hurbiltasun handiago izatearren. Edonola ere, eta behin betiko hipotesizat hartzerik ez badago ere, XVIII. mende hasieratik –bederen– Bizkaiko lurralde osorako salneurrietako nahiko homogeneotasun maila handia –non Bilboko salneurriek erritmo ekonomikoak markatzen ez dituzten– proposatzea zilegi dirudi, nonbait. Aurreko datuen arabera, beraz, gariaren salneurrietako nolabaiteko homogeneotasuna inferi daiteke, inportazioak bideratzen direneko bidatzen gainetik<sup>76</sup>.

## 6. ONDORIOAK

1. Salneurrietako analisisian ekoizpenaren jatorriaren araberako produktu multzoak sailkatzea etorkizunerako konklusio emankorrak lor ditzakeen metodologia baliogarria dugu.

2. *Salneurrien iraultza* deitutako garaiaren ondorengoa dugun aztertutakoaldi hau bitan bana daiteke –1685etik 1782ra, eta 1782tik 1880ra– inflazioaren eraginaren arabera: lehendabizikoan arina bada ere, bigarreanean nabarmen eragiten du.

3. XVII. mendean eta 1782tik nabarmenagoa den inflazioaren eraginez salneurrietako erritmoak eta aldaketak azaltzen dituzten beste faktore batzu deusezten ditu (gure kasurako garraioa, nonbait).

4. Talde tradizionalak jarraitutako erizpideak –Koantitatibismoa eta Fiskalismoa– gutxiezigokoak zein desbideratutakoak dira, gure eritziz; ez direlako kontutan hartzen garai eta eremuen araberako eragin ezberdinetako beste faktore batzu.

5. XVIII. mende hasierako Bizkaiko Jaurerriak lortutako integrazio mailak ez du Bilboko salneurri eta Bizkaikoaren arteko bikoiztasunik erakusten; bien arteko parekotasuna baizik. Aztertutako salneurrien arteko gorabeheretako ezberdintasunak izanik, berauek baino isladatzen dituzten koiuntura aldaketak adierazgarriagoztat jotzen ditugu.

6. Areatzako koiuntura ekonomikoaren analisisa aplika dakioke Aintzin Erregimeneko Bizkaiko lurralde osoari (*grosso modo*, noski, ez automatikoki edota bestelako argudio kritikorik gabe), batez ere gorabehera ekonomikoei

---

76. Nekazal eta hirietako eremuen arteko hartu-emanein dagokienez, badirudi XVIII. mendeko bigarren erdialdeko Lea ibaiaren arroan zenbait Elizatetako salneurriak (Amoroto edo Mendexakoak, esaterako) Lekeitio Hiribilduarenak baino garestiagoak zirela. Jakina, eskualde honetarako baino ez dugu horren datu bilduma handirik izan...

eta beronen erritmoei dagokionez. Eta ereduaren garrantzia goraipatu nahi dugu, berriro, nekez aurkituko delako hau bezain iturri oparorik.

## 7. ITURRIAK

### I) Areatzako Isabel Deunaren Komentuaren Artxibategi Historikoa (A.I.D.K.A.H.):

- \* 1665 eta 1683 bitarteko Kontu-liburuak (sarrerak/ordainak).
- \* 1683 eta 1695 bitarteko Kontu-liburuak (sarrerak/ordainak).
- \* 1695 eta 1714 bitarteko Kontu-liburuak (sarrerak/ordainak).
- \* 1714 eta 1726 bitarteko Kontu-liburuak (ordainak).
- \* 1726 eta 1755 bitarteko Kontu-liburuak (ordainak).
- \* 1755 eta 1773 bitarteko Kontu-liburuak (ordainak).
- \* 1773 eta 1833 bitarteko Kontu-liburuak (ordainak).
- \* 1833 eta 1879 bitarteko Kontu-liburuak (ordainak).
- \* 1879 eta 1946 bitarteko Kontu-liburuak (ordainak).

### II) Lekeitioko Domingotarren Komentuaren Artxibategi Historikoa (L.D.K.A.H.):

- \* 1799 eta 1833 bitarteko Inbentarioa.
- \* 1756 eta 1859 bitarteko Kontu-liburua (ordainak).

### III) Loiuiko San José-ren Komentuaren Artxibategi Historikoa (L.S.J.K.A.H.):

- \* 1796 eta 1853 bitarteko Kontu-liburua (sarrerak/ordainak).

### IV) Bizkaiko Artxibategi Historiko Probintziala (B.A.H.P): Notal-Ataleko Idazkariak:

- \* Pedro de Bedia Olaechea (Durango): 72. paper-sorta (1633).
- \* Miguel Ibáñez de Arteaga (Durango): 126. paper-sorta (1670).
- \* Antonio de Arbaiza (Durango): 151. paper-sorta (1701).

### V) Bizkaiko Foru Aldundiko Artxibategi Historikoa (B.F.A.A.):

- \* Atal Administratiboa: Biztanleri Estatistikak I: 24. Erreg.
- \* Atal Administratiboa: Biztanleri Estatistikak I: 50. Erreg.
- \* Atal Judiziala: Korregimendua: 593. paper-sorta, 6. znbk.
- \* Bestelakoak: Liburu Historikoak: 128. znbk. (Thouvenoten Errolda).

### VI) Gernikako Batzarretxeko Artxibategia (G.B.A.):

- \* Behekaldeko Artxibategia: Biztanleri Estatistikak: 20. Erreg. (1825eko Errolda).

### VII) Zeberioiko Udal Artxibategia (Z.U.A.):

- \* Zeberio, Olabarrietako Tomas Deuna, 1695 eta 1749 bitarteko Fabrika-liburua.

### VIII) Bizkaiko Elizbarrutiko Artxibategi Historikoa (B.E.A.H.):

- \* Belandia, Santa Eulalia: 1550 eta 1878 bitarteko Fabrika-Liburua.
- \* Ereño, Mikel Deuna: Arrosarioaren Kofradia, 1767 eta 1951 bitarteko Kontu-liburuak.

\* Lekeitio, Andra Mari: Kapituluak, 1771 eta 1836, eta 1836 eta 1918 bitarteko Kontu-liburuak; 1730 eta 1780 bitarteko Fabrika-liburua.

\* Mendexa, Kepa Deuna, 1760 eta 1843 bitarteko Fabrika-liburua.

\* Zeberio, Olabarrietako Tomas Deuna, 1753 eta 1802 bitarteko Fabrika-liburua.

## 8. INPRIMATURIKO ITURRIAK ETA BIBLIOGRAFIA

ABEL, W. (1966): *Agrarkrisen und Agrarkonjunktur - Eine Geschichte der Land- und Ernährungswirtschaft Mitteleuropas seit dem hohen Mittelalter* Hamburg (1935eko berrarg.)

ABEL, W. (1974): *Massernarmut und Hungerkrisen im vorindustriellen Europa - Versuch einer Synopsis* Hamburg

BARCENILLA, M.A. (1985): "De rentista feudal a rentista de capital. El Convento de la Santísima Trinidad de Orereta como agente económico. 1843-1905" In *Eusko Ikaskuntza. Cuadernos de Sección. Historia-Geografía* 6

BILBAO, L.M<sup>a</sup> (1977): "Crisis y reconstrucción de la economía vascongada en el siglo XVII" In *Saioak* 2

BILBAO, L.M<sup>a</sup>; eta FERNÁNDEZ DE PINEDO, E. (1984): "La producción agrícola en el País Vasco Peninsular, 1537/1850. Tendencia general y contrastes comarcales. Una aproximación" In *Eusko Ikaskuntza. Cuadernos de Sección. Historia-Geografía* 2

CANALES CANO, A.M<sup>a</sup> (1997): *Orduña* Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia

CATALÁN MARTÍNEZ, E. (1995): "La explotación del bosque por las iglesias vizcaínas, 1580-1770" In DONEZAR, J.M<sup>a</sup>; eta PÉREZ LEDESMA, M. (Eds.): *Antiguo Régimen y Liberalismo. Homenaje a Miguel Artola. Tomo II. Economía y Sociedad* Madril: Alianza

CIFUENTES PAZOS, J.M. (1994): *El papel económico de la iglesia vizcaína en el ámbito parroquial* Bilbo: Deustuko Unibertsitatea (argitaragabeko doktorogoko tesia)

CONDE FUERTE, R. (1997): *Orozko* Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia

HIRAS ROEL, A.; eta USERO GONZÁLEZ, R. (1975): "Precios de los granos en Santiago de Compostela y Mondoñedo: siglo XVIII" In *Actas de las I Jornadas de Metodología Aplicada de las Ciencias Históricas. Tomo III. Metodología de la Historia Moderna. Economía y Demografía* Vigo: Santiagoko Unibertsitatea

FERNÁNDEZ DE PINEDO, E. (1974): *Crecimiento económico y transformaciones sociales del País Vasco (1100-1850)* Madril: Siglo XXI

FLORISTÁN IMIZCOZ, A. (1982): *La Merindad de Estella en la Edad Moderna: los hombres y la tierra*. Irunea: Príncipe de Viana

GONZÁLEZ CEMPELLÍN, J.M. (1990): "La introducción y difusión del maíz en el Concejo de Güeñes" In *Eusko Ikaskuntza. Cuadernos de Sección. Historia-Geografía* 17

GORROTXATEGI PIKASARRI, J.M<sup>a</sup> (1987): *Historia de la confitería y repostería vasca. Tomo I*. Donostia

HAMILTON, E.J. (1988): *Guerra y precios en España. 1651-1800*. Madril: Alianza

I.N.E. (Ed.)(1988): *Censo de 1787. Floridablanca*. Madril: Artes Gráficas

ITURRIZA, J.R. (1985): *Historia General de Vizcaya*. Bilbo: Amigos del Libro Vasco (1885eko berrarg.)

- LABORDA, J.J. (1977): "El arranque de un largo protagonismo: la recuperación comercial de Vizcaya a comienzos del siglo XVIII" In *Saioak 2*
- LABROUSSE, E. (1980): *Fluctuaciones económicas e historia social*. Madrid: Tecnos (1962ko berrarg.)
- LANGE, J. (1996): *Economía rural tradicional en un valle vasco. Sobre el desarrollo de estructuras mercantiles en Zeberio en el siglo XVIII*. Bilbo: Beitia
- LANGE, J. (2000): "Y se hizo la luz: cera y aceite en las iglesias de Zeberio" In MIEZA, R.M<sup>a</sup>. y GRACÍA, J. (Eds): *Haciendo historia. Homenaje a M<sup>a</sup> A. Larrea*. Bilbo: EHU.
- LARRAMENDI, M. (1985): *Corografía de la Muy Noble y Muy Leal Provincia de Guipúzcoa*. Bilbo: Amigos del Libro Vasco (1754ko berrarg.)
- LE PLAY, F. (1990): *Campeños y pescadores del Norte de España*. Madrid: Nekazaritzako Ministeritza
- MADOZ, P. (1990): *Diccionario Geográfico-Estadístico-Histórico*. Valladolid: Ambito (1845eko berrarg.)
- MARTÍNEZ RUEDA, F. (1994): *Los Poderes Locales en Vizcaya. Del Antiguo Régimen a la Revolución Liberal (1700-1853)*. Bilbo: E.H.U.
- MAULEÓN, M. (1961): *La población de Bilbao en el Siglo XVIII*. Valladolid: Valladolidgo Unibertsitatea
- METZ, R. (1994): *Geld, Währung und Preisentwicklung- Der Niederrheinraum im europäischen Vergleich 1350-1800*. Frankfurt a.M.: Fritz Knapp Verlag
- MUTILOA, J.M<sup>a</sup> (1984): *La desamortización en Vizcaya* Bilbo: Bizkaiko Aurrezki Kutxa
- NADAL OLLER, J. (1959): "La revolución de los precios españoles en el siglo XVI" In *Hispania*
- PIEPER, R. (1985): *Die Preisrevolution in Spanien (1500-1640). Beiträge zur Wirtschafts - und Sozialgeschichte*. Wiesbaden: Steiner Verlag
- PINEDO OTAOLA, J.A. (1996): *Ermua, Mallabia y Zaldibar*. Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia
- PIQUERO ZARAUZ, S.; CARRIÓN ARREGUI, I.; MUGARTEGUI EGUÍA, I. (1998): "La revolución de los precios en Guipúzcoa del siglo XVI: los precios del trigo" In DÍAZ DE DURANA, J.R. (Arg.): *La lucha de bandos en el País Vasco: de los Parientes Mayores a la Hidalguía Universal. Guipúzcoa, de los bandos a la Provincia (siglos XIV-XVI)*. Gasteiz: E.H.U.
- RAMOS, F. (1987): "Algunos caracteres sociodemográficos de Arratia a fines del Antiguo Régimen" In *II. Euskal Mundu Biltzarra. IV. Alea. Aintzinako Erregimenaren Krisia*. Donostia: Txertoa
- REAL ACADEMIA DE LA HISTORIA (1980): *Diccionario Histórico-Geográfico del País Vasco. Tomo IV*. Bilbo: L.G.E.V. (1802ko berrarg.)
- URIARTE AYO, R. (1988): *Estructura, desarrollo y crisis de la siderurgia tradicional vizcaína (1700-1840)*. Bilbo: E.H.U.
- VILAR, P. (1972): *Oro y moneda en la historia*. Bartzelona: Ariel
- VILAR, P. (1983): *Crecimiento y desarrollo*. Bartzelona: Ariel
- VILAR, P. (1987): *Cataluña en la España Moderna. Tomo II. Las Transformaciones Agrarias*. Bartzelona: Crítica
- YBARRA Y BERGÉ, J. (1967): *Escudos de Vizcaya. Tomo III. Merindades de Marquina, Zornoza, Arratia-Bedia, Orozco y Ciudad de Orduña*. Bilbo: Villar